BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4221

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 24koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Mugarik Gabe erakundeak 2008ko lankidetza proiektuentzako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Consolidación de la Universidad Autónoma Intercultural Indígena, UAIIN» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzen duena.

Agindua, 2008ko abenduaren 16koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura 2008. urteko proiektuei diru-laguntzak ematen dizkiena. Agindu horren bidez, Mugarik Gabe erakundeari 371.148,93 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Consolidación de la Universidad Autónoma Intercultural Indígena, UAIIN» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2014ko uztailaren 17an bidalitako komunikazioan, hirugarren ordainketari uko-egiteko eskaera partziala aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatzi-zatiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabehera jakinarazi beharko dio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Horrekin batera, baimen-eskaera bidali beharko dio proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik, eta aurrekontuan dituen ondorioak zehaztu.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean hasi ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Mugarik Gabe erakundeari 2008ko lankidetza proiektuentzako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Consolidación de la Universidad Autónoma Intercultural Indígena, UAIIN» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, erakundeak hirugarren ordainketatik justifikatu gabeko kopurua itzuli beharko du, hau da, 34.676,18 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 24a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.